

## MIREN AZKARATE EUSKALTZAINAREN ERANTZUNA

(Patxi Goenaga euskaltzainaren sarrera-ekitaldian)

Gasteiz, 1995eko azaroaren 24an

Euskaltzainkideak. Agintari jaun-andreak. Lagunok.

Zaila da momentu hauetan sentitzen dudana adieraztea, baina erraza ere bai aldi berean. Poza, dudarik gabe, aspaldiko lagunak eta inoiz zuzenean haren eskolarik jaso ez arren, irakasle ere izan dudanak Euskaltzaindian sarrera egiten duen egunean; ohorea, ama puntako —amabitxi beste batzuek esaten duzuen bezala— aukeratu nauelako; kezka pitin bat ere bai, nola ez, ardura horri behar dugun euskaltzainak asko erraztuko dit gaurko nire lana, ez baita batere zaila euskaltzain oso hautatuta izateko dituen merituak aipatzea, eta horixe da, hain zuzen, ama puntakoaren lehen eginkizuna. 1974an amaitu zituen Patxi Goenagak Deustuko Unibertsitatean Filologia Erromanikoko lizentziatura lortzeko ikasketak. Handik bi urtera Donostiako EUTGra joan zen, sortu berria zen Euskal Filologian Sintaxia irakastera. Eta han ezagutu genuen elkar. Ez dut uste gehiegi esatea denik azken hogeitaz urte hauetan buru-belarri edo zeharka euskal morfosintaxian aritu garenotatik askok, gehienok, Patxi Goenaga izan dugula gidari, irakasle. 1978an lehenik eta 1980an ondoren, argitaratu zuen *Gramatika Bideetan* liburua, askori iruditu zitzaigun ikasi berriak genituen Chomskyren lanak euskarari aplikatzeko saio ezin hobea. Ondorioa atera dezakezue zenbat saldu zen —eta zenbat irakurri— Bilboko Galería del Libro delakoak emandako Zilareko Lauburua eskuratu baitzuen 1979an.

1980an Donostia utzi eta Gasteiza etorri zen, Euskal Herriko Unibertsitateko Filologia, Geografia eta Historia Fakultatera. Hor irakurri zuen 1984an bere doktore-tesia, K. Mitxelena irakaslearen zuzendaritzapean burutua, *Euskal Sintaxia: Konplementazio eta Nominalizazioa* izenekoa, kalifikazio gorena lortzeaz gain, urte horretako Resurrección María Azkue ikerketa saria ere irabazti ziona. Irakasle titular maila erdietsi zuen 1986an eta unibertsitateko maila gorena, katedra, 1991an. Ez da, ordea, irakasle-lan hutsetan aritu; bestelako ardurak ere hartu ditu bere gain, dekanordetza eta dekanotza lehenik, eta Arabako campuseko errektoreordetza azken lau urteotan.

Bere irakasle-lana ez du, jakina, Fakultateko eskoletara mugatu; mordo-xoa dira eta, Patxi Goenagak azken 15/20 urteotan eman dituen hitzaldi eta

ikastaroak: Euskal Herriko Unibertsitateak antolatzen dituen Udako Ikastaroe-tan, IVAPEk edo Bergarako UNEDek eratutakoetan, etab.

Bestalde, Biltzar batean baino gehiagotan izan da hizlari gonbidatu, edo bazorde antolatzaileko kide; hala nola, Primer Encuentro de Lingüistas y Filólogos de España y México biltzarrean, Baionan 1986an eginiko Colloque intéressant la gram-maire basque-n, II Eusko Mundu Biltzarrean, Euskara Biltzarra sailean, edo II Co-loquio de Gramática Generativa, Gasteizen 1992an antolatuan.

Irakaskuntzarekin batera, Unibertsitateko irakasleen ohiko duten ikerketa--lan-etan ere azaldu du bere balioa Patxi Goenagak. Horren lekuko dira —ondoren aipatuko ditudan beste lan batzuekin batera— arestian aipaturiko *Gramatika Bideetan* liburu mardularen ondoan, han eta hemen, aldizkari eta liburuetan, argitaratutako artikulu zerrenda luzea. Batzuk besterik ez aipatzearren, hor ditugu *Euskera*-n ager-uriko “Perpaua kompletiboei buruz”, ASJUko “Complementación y nominalización en euskara”, edo “Konpletiboak, zehargalderak eta erlatiboak” *Euskal sintaxiaren zenbati arazo* izeneko liburuan argitaratua, “Ohizko euskal sintaxia eta sintaxi ber-ri” *Euskal Linguistika eta literatura: bide berriak* liburukoa, “BEZALA morfe-maren inguruan sortzen diren zenbait egituraz” *Patxi Altunari omenaldia* izenekoan, “Orixeren gramatika lanez” *Orixeren omenaldian* jaso, “Izen sintagmaren egitu-raz” *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, Mitxelenaren omenez eginiko bil-dumarako prestatua... Ez nituzke aipatu gabe utzi nahi kanpoan argitaratuak ere: “Dialectos vascos y euskara común: el proceso de estandarización vasca”, *Estudios de Lingüística de España y México* liburuan argitaratua, eta “Lengua vasca” izeneko kapitulua, *Nuevas maravillas del saber*-en 1983an argia ikusi zuena.

Berak ikertu ez ezik, inoren ikerketa-lanetan aholkulari eta gidari izan dai-tekeela ere erakutsi du, Ultzamako euskarari buruz Orreaga Ibarra (?) andereak eginiko doktore-tesiak, Patxi Goenaga izan baitzuen zuzendari.

Merezimendu akademiko hauen guztien ondoan, baina, bada azpimarratu nahiko nukeen beste ezaugarri bat ere: Patxi Goenagak talde-lanerako duen doaina. Taldean lana antolatzen, zirikatzen, hasten ari ginenok bere ingurura bilduaz eragile izaten, zamarik astunenak askotan berak hartzen... horrela eza-gutu nuen Patxi Goenaga eta halaxe jarraitzen du gaur ere. Diodanaren leku-korik behar baduzue, hor dituzue Hegaz taldea eta Gramatika batzordea; azken hau ezagunagoa egingo zaizue, lehenaz ez hainbeste. Orduan euskal hizkun-tzako testuetan zegoen hutsunea bete nahian jardun zuen lanean Hegaz taldea, 1977tik 1980ra; hor bildu ginen gero leku diferente samarretan amaitu dugunak (gaur Kultura sailburu dugun Mari Karmen Garmendia, Karlos Otegi, Koro Navarro, Andres Otermin, Lupe Artola, Patxi Goenaga eta ni neu; hasieran taldea ugariagoa zen arren). Zerrendako izenak entzun orduko ohartuko zineten batzuek morfologia-sintaxiko lanetan eman genituela orduak; literaturan beste batzuek. Esan beharrik ez dago Patxi Goenaga izan zela taldearen antolatzaile nagusietakoa, baita lau urtean zehar —Iarunbat arratsaldetan bilduaz gainera— bizirik eutsi zionetakoa ere. Ez hori bakarrik, bilera horietatik, hiru liburu, *Eus-*

*kara Lantzen I, II eta O* (ordena honetan argitaratu baitziren) sortu izanaren erantzule nagusietakoa ere gaurko euskaltzain berria izan zen.

Taldearen azken aldera, 1980an, Euskaltzaindiak Gramatika batzordea sortu zuen eta, ordurako Patxi Goenagak euskal sintaxi kontuetan zuen maisutzaren jakinaren gainean, batzordekide izendatu zuen. Berriro ere ingurura bildu gintuen sintaxia pitin bat landu nahian genbiltzanok. Hamabost urte joan dira ordutik hona; Gramatika batzordeak izan ditu kide berriak; Patxi Goenaga hor izan dugu beti, gaur ere hor dugu, batzordeko idazkari, beti bultzatzaile, beti eragile. Eta beti, zer esanik ez, bere txostenen ekarria eskainiz. Esana dago, beraz, batzorde horrek orain arte argitaratu dituen 5 liburukietan dagoela, goian aipatutakoez gain, Patxi Goenagaren urte hauetako ikerlanaren puska on bat.

Gramatika batzordeko lanak emango dit bide, hain zuzen, euskaltzain berrriaren merezimenduen aipamenari amaiera emateko, Euskaltzaindian egin dituen lanak zehaztuaz. 1979az geroztik da Patxi Goenaga euskaltzain urgazle, ordurako bai bazebilen Euskaltzaindian lanean. Urte horretan bertan Sebero Altuberen omenez Arrasaten egin zen IX. Biltzarrean parte hartu zuen, bai eta 1984an Iruñean antolatu zen X. Biltzarrean ere. Gramatika batzordeko kide izateaz gain, Lexikologi Irizpideen Finkapenerako batzordeko kide ere bada. Hor ere garrantzitsua izan da Patxi Goenagaren ekarria, eta eztabaidei ematen dien maila teorikoa.

Ikusten duzue, beraz, hasieran esan dudana egia baino ez zela: ez da batere zaila halako euskaltzainaren merezimenduen berri ematea.

Ama-puntakoari badagokio, ordea, entzun berria dugun sarrera hitzaldiari erantzun akademikoa ematea ere. Horrexek kezkatzen ninduen. Baina hemen ere Patxi Goenagak aukeratu duen gaiak kezka arindu dit. Ez da harritzekoa Gramatika batzordeak Leioako Biltzarrerako prestatu zuen txostenaz gain, *Euskaldunon Egunkari*-ko *Orri Debozisionekoa*-n ere euskararen zuzentasunaz arduratu denak, "Euskararen batasuna eta duintasuna" hartu izana bere hitzaldiko gaitzat. Eta langintza horretan ere ez gara oso urrun ibili biok. Utziko didazue, beraz, hari beretik jarraitzen. Izan ere, Labaienek euskara batuari buruz idatzi eta Patxi Goenagak gogorarazi dizkigunetan bada, nik uste, gauzak jakingarri bat baino gehiago, gaurkotasun osokoa gainera.

Hauxe da esan nahi dudana, Labaienen gogoetek eta esanek balio dute neurri handi batean gaurko Euskaltzaindiaren lana definitzeko. Baina ez horretarako bakarrik, gaurko euskara estandarren beharrak eta gabeziak, mensak ere hortxe daude jasoak.

Entzun dugunetik jasoko nukeen puntu nagusia, Labaienek hizkuntzaren erabilera zuzenaz, lexiko kontuez, terminologiaz, erakusten duen kezka da. Bete-beteko lotura du horrek Jagon Sailaren 1994ko Jardunaldietan aztertu zen euskararen kalitatearen gaiarekin. Eta ez da Jagon Sailaren, edo Euskaltzaindiaren kezka bakarrik; Administrazioan, Irakaskuntzan, Komunikabideetan behin eta berriro aipatzen da eremu bakoitzerako euskara zuzen eta egokia aurkitu beharra.

Oro har, esango nuke, estandar batuaren beharra inork gutxik auzitan jartzen duen puntura iritsi ondoren, ohartu garela estandar bakarrarekin ezin garela moldatu. Era berean, bat etorriko ginateke seguruenik azken urteetako euskara estandarri askotan gogor eta trakets kalifikatzaileak ematerakoan. Euskara batu estandarren bila abiatu gara, beraz, hemengo eta hango ereduaren egokitasuna aztertuaz. Kezka honen oihartzun dira, Joxe Ramon Zubimendi eta Pello Esnal-en *Idazkeraliburua*, Bittor Hildagoren doktore-tesia Hitzen ordena euskaraz gai duena, eta berrikitan Anjel Lertxundiri irratian entzun dizkiodan adierazpenak ekarriko nituzke gaur hona. Lehen biak, estandarren nolakotasunari dagozkio. Anjel Lertxundiren iritziak, hizkuntza-maila diferenteei, erregistroei.

Joxe Ramon Zubimendi eta Pello Esnalek gogor astindu zuten *euskara gordin* deitu zutena, eta horixe hartu nahi dut hizpide hasteko. Utz dezagun alde batera *sasi euskara*, gramatika-akatsak dituena. Lot gakizkion gramatikalki zuzena izan eta batasunerako arauak ere betetzen dituenari. Hala ere behin baino gehiagotan euskara hori *gordintzat* salatzen dute liburuaren egileek, ulergaitza baita, testua behin eta berriz irakurtzera behartzen gaituena. Horrelakoa al da behar dugun estandarra? Administrazioiko idazkietan, testu-liburuetan, egunkari eta aldizkarietan irakurtzen dugunak —Zubimendik eta Esnalek esaten duten bezala besterik da literaturako kasua— ulergarri izan behar dugula aldarrikatzeak zuzena dirudi. Behar bada ez dute proposamen guztietan bete-betean asmatu, baina bada liburu horretan kontuan hartzeko gogoeta interesgarririk. Antzeko kezkek, zuzentasuna galdu gabe, administrazioarako hizkera malgu eta gozoagoa aurkitu nahiak, bultzatu bide ditu IVAP edo HAEEkoak ere *Administrazioa Euskaraz* aldizkaria egitera.

Halaber estandarren ezaugarriekin lotuko nuke hitzen ordena dela eta, gaur bide okerretik gabiltzala erakutsi nahi duen Hildagoren doktore-tesia. Badiara tesi horretan ere, nik uste, gehiago eman beharra; baina, hala ere, eta hor defendatzen dena bete-betean aplikatzeko berandu gabiltzala uste izan arren, aportazio interesgarritzat hartu behar da, dudarik gabe. Pello Esnalek eta Joxe Ramon Zubimendik salatzen duten euskara gordinari ihes egiteko bidea eskaintzen zaigu hor; itzultzaile batzuen aditza aurreratzeko eskariari, baimena emateko zalantzak uxatzen dizkiguten datuak eta argumentuak.

Bestalde, zer esan Labaienek berak eta beste hainbatek ere estandarri ezarri nahi dion ezaugarriaz: herri-hizkerako esapide eta espresio altxor aberatsa jaso dezala, herri-hizkeratik ez dadila urrundu...? Nire iritziz ezin hobeki erantzuten dioten horri Anjel Lertxundik duela aste pare bat esandakoek. Goenkaleko euskara zuten hizpide, besteak beste hizkera dela medio izan duen arrakasta, horko euskarak jaso dituen goraiamenak. Anjel Lertxundiren erantzuna izan zen ez zela batere harritu arrakasta horretaz, belarriak hartzen duen euskara, kalekoa, baita hor erabili dena; neuk erantsiko nuke largunarteko esamoldeak jasotzeko ahalegina egin dela, helduei eta gazteei dagokien hizkera bereiztekoa... Baina, gaineratu zuen Lertxundik, euskara eredu horrek ez luke balioko telebistatik irten gabe ere, dokumental baterako. Are gutxiago balioko

du testu-liburuetarako edo administrazioko idazkietarako. Eredu bakoitzak eskatzen du, beraz, eredu berezia. Eta horixe izango dugu hurrengo urteetako erronketako bat: erregistro bakoitzerako eredu egokiak aurkitzea. Patxi Goenagak hitzaldian aipatu duenaren haritik, gazteentzat balioko duten euskal ereduak, esamoldeak, erdarazkoak adinako indarra izango dutenak aurkitzea, besteak beste.

Eta nori dagokio eredu egoki horiek aurkitzea? Guztioi. Entzun berri duenez, “lanak eta erantzukizunak banatu beharrean gara”. Batasunerako erabakitzeke dauden puntuak zehaztea, tradizioetik okertzen garenean bide zuzenera ekartzen ahalegintzea, Euskaltzaindiaren egitekoa dira. Baina hizkuntza adierazgarria sortzea, esaterako, guztion ardura da: gidoigileena, komikigileena, txiste-kontatzaileena, gazte jendearena oro har.

Gaurko estandarren beharrak aipatzen jarraituz, lexikora eta terminologiara jauzi egingo dut ondoren. Horixe omen zen, esan digu Patxi Goenagak, Labaienenez kezka nagusienetakoa: hitz egokien erabilera, euskal hitzen altxorra bizitza modernoaren beharretara egokitzea, beti ere erdiko bide zabaletik ibiliz, mordoilekerietatik eta garbizalekerietatik urrunduz. Horretantxe ari gara, bada, buru-belarri. Batetik, Hiztegi Batuko batzordea 25.000 sarrera inguruko hiztegia osatu nahian dabil, tradiziozko hitzen ondoan, gaurko bizimoduak eskatzen duen hitz berri mordoia zuzen eraturik eta euskaldun guztiontzat onargarri izango dela ziurtatuko nahiko lukeena. Ez da bakarrik ari, ordea. Iritzi-emaile taldea dugu laguntzaile, proposamenak irakurri eta askotan begi zorrotzez kritikatzeko dituenak.

Terminologian dugu oraindik bide luze samarra egiteko. Egia da aurrera-pausoak eman direla, talde-lanerako bideak jorratu dira (Zerga inprimakiak, Barne-errotulazioa, Bide-seinaleak edo Nekazaritza Hiztegia lekuko). Hala ere, bi behar nagusi azpimarratuko nituzke: erabakimena eta koordinazioa. Azken aipatu dudanetik hasita, koordinazio behar handia dugu oraindik ere; besteek zer egiten duten, edo zer egin duten, jakin beharra, gu geu forma berriak proposatzeko hasi aurretik. Eta berez kanpotik gauza erraza dirudien arren, praktikan askotan geure kasa ibiltzen gara. Komunikabideetan, administrazioan ere bai, Unibertsitatean zer esanik ez, egiten diren proposamenak, bakoitzak erabiltzen dituen formak biltzeko leku egokiak eratu beharko genituzke; datu-banku terminologikoak bide egokia izan daitezke. Baina eratu ondoren, kontsultatzen ere ohitu beharko genuke; aurkitzen dugun forma egokia iruditzen ez zaigunean geure proposamena banku horretara bidaltzen, etab.

Horrek adina kezkatzen nau, ordea, beste honek: proposamenak aztertu eta erabakiak nork hartuko ditu? Nork izango du terminologia-kontuetan, batasuneko auzietan Euskaltzaindiak duen itzala? Katalunian duten Terminologia batzordearen antzekoa osatzea izan daiteke, behar bada, irtenbidea. Agian, unibertsitateko jakintza-alorretakoak (Fisika, Kimika, Biologia, Arteak, Psikologia...) eta bestelakoak (komunikabideetakoak, merkataritza-mundukoak...) ere bereiz ditzakegu, eta erabakigune desberdinak sortu. Nolanahi ere, euskararen

batasunez eta duintasunaz dihardugun arratsalde hau, une egokia iruditzen zait terminologian ahalik arinen urratu beharko genuen bidearen garrantziaz ohar-tarazteko.

Batzorde horrek, edo bestelakoren batek, baina Labaienek nahi zuen “er-dibidea” non dagoen ere eztabaidatu beharko dugu. Terminoa nazioartekoa de-nean zalantza handiegirik ez dugu izaten; horretan behintzat badirudi nahiko bat gatzela. Baina nola jokatu onenean ere hizkuntza erromantzeak bide batetik, eta ingelesa edo alemana beste batetik doazenean? Euskal terminologia modernorako irizpideak finkatzeko ahalegina egin beharko genuke, Hiztegi batuko batzordeak, lexiko arrunterako egin duenaren antzekoa.

Eredu egokien harira itzuliz, irakaskuntzaz eta euskalkiez hitz bi esan nahi nituzke. Labaienek gogoetak zuhurrak eta zentzuzkoak dira eta ene ustez. Euskalkiei lehen mailako eskoletan sarrera eskaintzea bidezkotzat eta beharrezkotzat jotzen duenean, ez bide dabil hain oker; ez da horrelako jokabide baten alde azaldu den bakarra. Gizartearen kezka honi ere erantzun beharko diogu guztion artean, estandarraren eta euskalkien arteko oreka egokia aurkitu nahi badugu. Eta gauza guztien gainetik, eskolako euskara desmitifikatzen ikasi behar dugu, eskolakoa eta etxekoa bi erregistro direla irakatsi behar zaie bai umeei eta bai gurasoei, biak direla baliotsu, biak ikasteko. Baina etxeko, herriko ereduak ere badu lekua, jakina, eskolan ematen dituzten orduetan: badu lekua jolastokian, ikaskideen arteko mintzoan; badu lekua, jakina, egunetik egunera ugariagoak diren eskolaz kanpoko jardunetan. Izan behar al du lekurik, edo zenbaterainokoa izan behar du, eskola barruan, gelan, erabiltzen den hizkeran? Aztertu beharrekoa izango da hori ere.

Eta gehiegi luzatu gabe, euskararen batasunaz eta zuzentasunaz zerbait esanaz, zehazkiago, Patxi Goenagak esanak berretsiaz amaitu nahi nuke. Argi dago oraindik ez dela batasuneko bidea amaitu; argi ikusi dugu oro har euskaraz lanean dihardutenen ezagutza-maila hobetu beharra dagoela. Begibistakoa da batasunerako arauak hartzeaz gain, azken urteetan okerrak zuzentzeaz ere arduratu behar izan duela Euskaltzaindiak. Eta honen harira, Labaien gogoeta aipatuko nuke berriro: Ez da aski arrazoiak izatea, ezartzeko indarra ere izan behar da. Indar hori, batetik, Euskaltzaindiak duen itzaletik dator. Baina itzal hutsaz ez gara urrun iritsiko; geure proposamenak zabaldu eta euskal munduan ezagutarazi beharko ditugu, ikastaroen beharra izango da; arauak bete-arazteko agintarien laguntza ere bai. Hitz bitan esateko, guztion partaidetza beharko da ondoko belaunaldiei euskara estandar batu eta egokia utziko badiegu. Ez pentsa, beraz, Euskaltzaindiaren zeregina bakarrik denik; guk adina lan, edo gehiago, egin beharko duzue pazientzia osoz entzuten aritu zareten agintariak, irakasleak, komunikabideetako edo administrazioko langileak, nahiz ikasleak. Euskaltzain berriaren gonbita neure egiten dut, beraz, euskararen batasunaren eta duintasunaren bidean guztiok batera aurrera jarrai dezagun!